

UPV/EHU 2014-2015 IKASTURTEA

*De la antigüedad y universalidad del
vascuence en España:*

apologia baten analisi erretorikoa

EGILEA: IRATI TAPIA MARTINEZ

Filologiako gradua (Filologia Klasikoa)

TUTOREA: Guadalupe Lopetegui Semperena

IKASKETA KLASIKOAK SAILA

LABURPENA

Lan honen helburua Manuel de Larramendiren *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España* obraren analisi erretorikoa egitea da. Aztergaia, XVIII. mendean, teoria vasco-iberistak bultzatutako literaturan kokatzen den idatzi apologetikoa da eta landuko ditugun arloak, euskal klasikoak eta latindar erretorika dira.

Orokorrean, Larramendiren obrari buruz ez dago ikerketa-lan askorik, are gutxiago aztertuko dudan obrari buruzkoak. Argitaratu diren lan gehienak bere hiztegi-intzaren ingurukoak dira. Tellechea Idigoras izan da batik bat Larramendiren bizitza eta obraren argitaratzaile eta aztertzaile nagusia. *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España*, bere obra guztiari hasiera ematen dion lana da. Apologia honen bitartez, Larramendik, euskararen defentsa egiteaz gain, bere lan guztietan azaldutako ideia eta prozedurak justifikatu eta defendatuko ditu. Zentzu horretan beraz, Larramendik Euskal Literaturaren historian duen garrantzia ulertzeko, baita latindar Erretorikak euskal klasikoetan izan duen eragina egiaztatzeko ere, apologia hau idatzi egokia iruditu zait, eta ideia horren harira ekin diot obra honen analisi erretorikoari.

Salaberriren “Axularren prosa erretorikaren argitan” tesian oinarritu naiz lanaren egituraketa egiteko (Salaberri, 1997). Horrela, lana bi zati nagusitan banatzen da. Lehenengoan, obraren testuinguru politiko, sozial, ekonomiko eta literarioa, baita ekintza erretorikoaren beste osagaiak ere (egilea eta hartzailea) aztertu ditut. Testuinguruaren barnean toki berezia eskaini diet garaiko Erretorikaren egoerari eta vasco-iberismoaren teoriari, obra ulertzeko ezinbesteko gaiak diren heinean. Izan ere, azken teoria honek dio euskara, Tubal-ek Babelgo dorrearen nahastetik ekarritako hizkuntzetako bat zela eta erromatarrek Penintsula konkistatu aurretik bertan zegoen bakarra zela. Teoria hau da funtsean Larramendik bere obran defendatuko duena, eta defentsa bat den neurrian, argumentazio erretorikoaz baliatuko da. Manuel de Larramendiren heziketa eta Jesuitek irakaskuntzan zuten garrantziari begirada bat ematea ere ezinbestekoa iruditu zait idazleak darabiltzan baliabide, iturriak eta esamoldeak ulertzeko faktore eragingarriak baitira. Azkenik, obra nori zuzentzen zaion planteatzeari inportantea deritzot, irakurleagoaren jakintza mailak ere baldintzatzen baitu bertan erabilitako estiloa.

Bigarren zatian, diskurtso erretorikoaren –hots, ekintza erretorikoaren azken elementuaren- analisisia egingo dut, tradizio klasikoak finkatutako Erretorikaren atalak

jarraituz. Hau da, lehenik obraren *genusa* definituko dugu; ondoren, obraren gaiak eta iturriak ezagutzeko, *inventio* edo aurkikuntza prozesua; jarraian Larramendiren lanaren *dispositio* edo egitura, eta horren arabera, diskurtoaren zati desberdinen ezaugarriak (bereziki *exordia* eta argumentazioa); eta azkenik, *elocutio* edo esateko moduak arakatuko ditugu. Bukatzeko, prozesuan zehar atera ditudan ondorioak aurkeztuko ditut.

AURKIBIDEA

0.- SARRERA.....	5
1.-INGURUGIRO POLITIKO, SOZIAL, EKONOMIKO ETA LITERARIOA ...	5
1.1 .- TESTUINGURU POLITIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOA.....	6
1.2.- TESTUINGURU LITERARIOA.....	7
2.- ERRETORIKA XVII ETA XVIII. MENDEETAN. JESUITEN GARRANTZIA	8
3.- VASCO-IBERISMOAREN TEORIA	11
4.- EGILEA.....	13
4.1.- BIZITZA ETA FORMAKUNTZA	13
4.2.- BERE OBRAREN ERAGINA ETA BERE AURKA EGINDAKO KRITIKAK	15
5.- IRAKURLE EDO HARTZAILEA	16
6.- OBRAREN ANALISI ERRETORIKOA	18
6.1.- OBRAREN <i>GENUS</i> -A ETA ILDO NAGUSIAK	18
6.2.- <i>INVENTIO</i>	20
6.3.- <i>DISPOSITIO</i>	22
6.3.1.- <i>EXORDIOA</i>	23
6.3.2.- <i>ARGUMENTATIO</i>	25
6.3.2.1.- EGITURA SILOGISTIKOAREN ERABILERA	27
6.4.- <i>ELOCUTIO</i>	28
7. ONDORIOAK.....	31
BIBLIOGRAFIA	33

0.- SARRERA

Lan honen helburua Manuel de Larramendiren *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España*¹ obraren analisi erretorikoa egitea da. Horrela, latindar Erretorikak euskal klasikoetan ere eraginik izan zuela ikusiko dugu. Dena den, Erretorika hitza berak azken mendeetan jasan duen gaitzespena kontuan harturik, ezinbestekoa iruditzen zaigu Erretorika klasikoaren izaera eta esparrua ulertzeko hauxe azaltzea: Antzinateko arte erretorikoak, entzulea konbentzitzeko eta limurtzeko diskurtsoa nola egin irakasten digula arautegi sistematizatu baten bidez. Baina arautegi horrek argi uzten du Antzinateko teorikoentzat diskurtsoa komunikazio ekintza, hau da, ekintza erretoriko konplexu baten elementu bat baino ez dela. Ikuspuntu zabal eta aberats honen garrantziaz ohartzeko XX. mendera arte itxaron behar izan dugu, hain zuzen Semiotika eta Hizkuntzalaritza Pragmatikoa deituriko diziplinak garatu diren arte (López Eire, 2008).

Beraz, Erretorika liburuetan eskaintzen zaizkigun arauak, diskurtso baten makroegitura nahiz mikroegitura nola osatu azaltzen digute, baita antolaketa horrek hizlariarekin, irakurlearekin, erreferentearekin eta komunikazio testuinguruarekin duen erlazioa ere. Hortaz, diskurtsoa, ekintza erretoriko horren muina da eta bere sortze nahiz eratze prozesua, gainontzeko elementu guztien elkar eraginak baldintzatzen du (Albaladejo, 1993, 47-51. orr).

Hori dela eta, nahitaezkoa ikusi dut lan honetan ekintza erretorikoaren elementu horiek guztiak aztertzea, hau da, testuingurua, hizlaria, hartzailea eta, batez ere testu erretorikoa bera, azken hori beste guztien elkar eraginaren ondorio baita.

1.-INGURUGIRO POLITIKO, SOZIAL, EKONOMIKO ETA LITERARIOA

Larramendiren obra eta ekarpena egoki aztertzeko, bizi izan zuen ingurugiroaren azalpen labur bat egitea beharrezkoa iruditu zait. Azalpen hori, bere bizitza eta formazioaren inguruko datuekin osatuko dugu².

¹ Lan honetan zehar aurkitzen diren obra honen aipamen guztiak Roger editorialak 2000. urtean argitaratutako ediziotik hartuak dira. (Larramendi & Perochegi, 2000)

²Urkizuren (Urkizu & Olaziregi, 2000, 233-238. orr) eta Villasanteren (Villasante, 1979, 101-103, 121-131 & 140-144. orr) euskal literaturaren historiak hartu ditut asmo horretarako jarraibide nagusi.

1.1 .- TESTUINGURU POLITIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOA

XVIII. mendean, 1705tik 1714rainoko Ondorengotza gerraren eraginez, Espainiak eta Frantziak hainbat jabetza galdu zituzten eta horrek arazo ekonomikoak ekarri zituen. Borboitarrek Espainiako koroa hartu zuten, eta Frantziako izpiritu zentralista ezarri estatuan, periferiako probintziak, horien artean Euskal herria, Administrazioaren eta Kulturalen alorretan guztiz baztertuz.

Ipar Euskal herrian, itsas merkataritzak zekartzan onurak kaltetu ziren Utrech-eko tratatuan sinatutako Terranova-ren galeraren ondorioz. Biztanleria asko jaitsi zen eta krisi ekonomiko horrek euskal liburuaren argitalpena ere galarazi zuen.

Hego euskal herrian berriz, nekazaritzak eta abeltzaintzak gora egin zuten, lursailei etekin handiagoa ateratzen baitzitzaion. Bilboko portuak ere onura handiak zekarzkie Euskal Herriko ekonomiari. Halere, Amerikarekin komertzioa asko jaitsi zen. Hortaz aparte, Larramendik berak aipatzen du bere hiztegi hirukoitzeko aitzinsolasean, euskal herritarrek, bertatik irtendakoan, euskara ahazten zutela, ez zutela euskaraz gutun bat ere idazten, ez zitzaizela umeei irakasten, ez zegoela euskara irakasten zekien maisurik eta ez zela ia euskaraz libururik argitaratzen.

Kleroari dagokionez, doktrina jansenistak baztertuak izan ziren eta Daguerrek Larresoroko seminarioa ireki zuen 1733an, zeinak influentzia handia eduki baitzuen hurrengo mendeetan. Horri lotuta esan beharra dago Inkisizioa oraindik martxan zegoela eta horrek kalte egin ziola garaiko literaturari.

Urte horietan, Zientziak, Letrak eta Arte ederrak aztergai zituen pentsalarien elkarte bat sortu zen Azkoitian, eta mende hartako polemika nagusietako batean parte hartu zuen, hain zuzen, Filosofia zahar eta berriaren arteko eztabaidan, Filosofia berriaren eta fisika experimentalaren alde eginez. Jesuitek berriz, Larramendi haien artean, Filosofia tradizionalaren aldekoak ziren. Kontuan hartzekoa da, 1766an Kardaberatzek euskaraz idatzitako liburu baten argitalpena debekatua izan zela eta hurrengo urtean Jesuitak estatutik bota zituztela, Carlos III.ak lagundi erlijiosoek irakaskuntzan zuten protagonismoa ezabatu nahi baitzuen; baina ordurako Larramendi hilda zegoen.

Literatura eta hizkuntzari dagokionez, mende honetan jaio zen “Espainiar Hizkuntzaren Errege Akademia”, eta 1714an argitaratu zuen bere lehen Hiztegia. Hortik sortu zen Larramendik bere Hiztegi Hirukoitza argitaratzeko asmoa. Euskara ez zen administrazioan erabiltzen eta langile guztiak erdaraz egitera behartuak zeuden.

Ondorioz, diglosiaren fenomenoaren areagotu zen, hau da, elebitasun desorekatua, hizkuntza batek besteak baino prestigio handiagoa izateagatik.

1.2.- TESTUINGURU LITERARIOA

XVII. mendean euskal literaturak loraldia ezagutu zuen batez ere ipar Euskal Herrian, hegoaldean euskal literaturak inongo aurrerapenik egiten ez zuen bitartean. XVIII. mendean, berriz, kontrakoa gertatu zen. Larramendiri esker, hegoaldeko euskal literaturaren birjaiotzea aipatu behar dugu, berpizte horrek batez ere XVIII. mendearen bigarren zatian bere fruituak eman baitzituen. Bere obra euskal idazle berri askoren eragingarria izanen da, Larramendi argi bat izan baitzen garai hartan euskal literaturak zuen hutsunean, bereziki elizgizonen artean. “Larramendiren generazioa” deiturikoen artean aipa daitezke, esate baterako, Agustín Kardaberatz eta Aita Mendiburu. Honekin batera esan behar da, Hervás-ek bere *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas* (1804) obran aipatzen duen modura, 1729. urtera arte, hau da *El imposible vencido* gramatikaren argitalpena arte, euskal gramatika ezezaguna zela garaiko literaturagileentzat.

Bestetik, mende honetan ekimen kultural berri bat daukagu, aipatutako Azkoitiko pentsalariaren elkarte, “Errege Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte” deiturikoa. Haren xedea, euskal hizkuntza eta literatura aztertzea nahiz goratzea zen, baina egoera politikoak eta gerrateek lan hori zaila egin zuten eta hurrengo mendean elkarteak desagertu egin zen.

XVIII. mendetik XX. mendera arte erlijio liburuak izan dira euskal literaturaren ardatza, eta elizgizonak sortzaile nagusiak. Gure hizkuntzan Larramendiren obrak izan zuen eragina handia da, batez ere garbizaletasunaren aldeko jarrera bultzatu zuelako. Idazle andoaindarrak apologisten tradizioa jarraitzen du, hala nola, Garibay, Etxabe edo Etxeberri Sarakoarena. Bere jarrera apologista hori, hemen aztertuko dugun obran, hots, *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España* izenekoan, eta Hiztegi Hirukoitzaren aitzinsolasean garbi azaltzen da. Bere xedeetako bat, elizgizonei euskal gramatika eta hiztegia erakustea zen, Jainkoaren hitza hobe aditzera emateko. Larramendik ondorengo euskal idazleengan eragin handia izan bazuen ere, askok eskertzen dute bere ondorengoek haren neologismoak gehiegi erabili ez izana.

Konklusio moduan Villasantek dio, Axular eta Larramendi direla Euskal Herriko bi literatur korronteren sortzaile, lehena iparraldean eta bigarrena hegoaldean, baina

Axular liburu zoragarri baten idazlea den bitartean, Larramendik eztabaida gai eta ohore kontu bihurtu zuen euskara. Villasanteren ustetan, Larramendik hegoaldeko literaturan akats edo okerdura bat sortzen lagundu zuen, hain zuzen, gure hizkuntza gaztelaniaren eraginaz libratzearen kezka ulergaitza, gero askok muturreraino eramango zutena (Villasante, 1979, 144. orr).

2.- ERRETORIKA XVII ETA XVIII. MENDEETAN. JESUITEN GARRANTZIA

Lan honen muina Larramendiren *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España* (1728) obraren analisi erretorikoa egitea delarik, ezinbestekoa ikusi dut garai horretako Erretorikaren ezaugarriak laburbiltzea³.

Hasteko esan behar da, Errenazimenduko loraldia atzean utzita, XVII. mendeko Erretorika originaltasun gutxiko diziplina bilakatu zela. Despotismoaren eta monarkia absolutisten garai hartan, adierazpen askatasunarekin lotutako diziplina horri dezente murriztu zitzaizkion aplikazio eremuak. Aipatutako ingurugiro politiko eta sozialari, arrazionalismo zientifikoaren eragina ere gehitu behar zaio.

Orokorrean, bi joera nabarmendu daitezke XVIII. mendeko praktika erretorikoan: estilo barrokoari lotutakoa bat, jesuitek garatu zutena *Ratio studiorum* izeneko hezkuntza sistemaren bidez, eta Frantzia nahiz Ingalaterran sortu zen joera anti-erretorikoa bestea, estilo zientifikoaren defentsarekin lotutakoa. Lehenengoak, figura edo *colores rhetorici* deiturikoetan oinarritutako estilo oparoa zuen helburu eta bigarrenak, eduki eta adierazpenaren arteko oreka eta hizkuntzaren erabilpen zuzena, Antzinateko klasikoak gidari hartuta (Gómez Cervantes, 2007, 425).

Hortaz, joera barrokoaren eraginpean garatu zen estilo erretoriko jasoak eraso ugari jaso zuen arrazionalismo zientifikoaren eskutik: Bacon, Hobbes eta Locke pentsaera horren ordezkari ditugu. Beraien ustetan, Erretorikak *pathé* edo emozio ezkorrak pizteko baino ez du balio, eta zientzian egi absolutuak adierazteko lengoia zientifikoa da beharrezko bakarra. XVIII. mendean areagotu egin ziren Erretorikaren aurkako erasoak Kant edo D'Alembert bezalakoaren eskutik. (López Eire, 2000, 71).

³XVII. eta XVIII. mendeetako Erretorikaren bilakaeraren ildo nagusiak azaltzeko, J.A. Hernández, 2009 eta R. M. Aradra 1997, 21-53 orr. hartu ditut erreferentzi gisa.

Bestalde, garaiko Oratoria sakratuak bi bide berri oso ezberdin hartu zituen, bata kontzeptualismoaren ildotik, eta bestea kulteranismoarenetik, non ideia logiko eta kontzeptuen estetika modu orekatuan elkartzen ziren; azken hori zen predikatzailen artean arrakastatsuen. (Salaberri, 1997, 55. orr).

Esan dugunez, jesuiten eskuetan zegoen Erretorikaren irakaskuntza XVII. mendean, eta *ratio studiorum* delako hezkuntza sisteman, Erretorika eta Gramatika ziren diziplina nagusiak, horiek baitziren Liburu Santuak interpretatzeko bidea. Jesuiten eskola garrantzitsuenak Madrileko Seminario de Nobles, Egoitza Inperialeko Errege ikasketak, Madrileko Errege Ikasketen Seminarioa eta Zerberako eta Gandiako unibertsitateak ziren. Oratoria judiziala eta eztabaida diskurtsoa alde batera utziz, Oratoria sakratua landu zuten, eta iturri klasikoen artean, Zizeron zen jaun eta jabe.

Erretorikaren inguruko hainbat lan garrantzitsu zor dizkiegu garai honetako jesuitei, hala nola, *De Arte Rhetorica* (Cipriano Suárez), *De Arte Oratoria* (Aita Bravo), *De Ratione Dicendi* (Bartolomé Alcázar), eta XVII. mendeko predikatzailengan eragin handia izan zuen *Agudeza y arte de ingenio* (Baltasar Gracián).

XVIII. mendean ere, aurreko mendeko joerari jarraituz, Erretorikak funtzio garrantzitsua betetzen zuen irakaskuntzan eta XVII. mendean bezala, Oratoria sakratua gailentzen da beste hizlaritza moten gainetik. Ekoizpen erretorikoari dagokionez, elizgizonek dute protagonismoa, horiek baitira kargu publiko garrantzitsuak betetzen zituztenak eta irakaskuntzan nagusigoa zutenak, Ilustrazioak sekularizazio ahaleginak egin bazituen ere. Frantzia Klasizismoa erroturik dago eta haren eragina Europan ere ikusten da; Klasizistek, Zizeron, Kintiliano eta beste batzuen erretorika lanak miresten eta eredutzat hartzen dituzte.

Espanian ere, klasizisten eta modernoek arteko liskarrak antzematen dira. Boileau ikuspegi klasizistaren aldekoa zen. Bere lanen itzulpenek arrakasta handia lortu zuten, Oratoria sakratuaren nahiz Erretorikaren esparruan argitaratutako eskuliburu askoren eredu izan zelarik, teoriko grekolatindarrekin batera. Autore garrantzitsuenak, Luzán, Artiga, Mayans y Siscar, Pabón, Hornero, Capmany eta Madramany izan ziren⁴.

⁴Luzán-ek garai honetako espainiar tratatu famatuena idatzi zuen, *Poética*(1739). Artigak, *El epítome de la elocuencia española* argitaratu zuen 1750. urtean, eta Mayans y Siscar-ek bere obra nagusia izan zen *Orígenes de la Lengua española* (1737)-z gain, *Oración que exhorta a seguir la verdadera idea de la Elocuencia Española* (1727), *El orador christiano* (1733) eta *Rhetorica* (1757). Pabón-ek ere mende

Hainbat faktorek sasoi honetako ekoizpen erretorikoaren gorakadan eragina izan zuten: burgesiaren goraldiak, irakaskuntzarako sarbide irekiagoak, analfabetismo kopuruaren beherakadak eta bereziki, aldaketa politikoen ondorioz, hizlaritza politikoa egoki menperatu behar izateak. Horrela helburu didaktikoa zuten erretorika eta poetika eskuliburu asko argitaratu ziren eta gobernuak kaleratutako babespen legeek ere lagundu zuten gorakada horretan, 1752an Espainiako mugetatik kanpo inprimatutako liburuen sarrera debekatu baitzen.

Hala eta guztiz ere, aipatutako ekoizpenaren kalitatea gainbehera zihoan, eta zenbait historialariren iritziz, jesuiten irakaskuntza ereduia izan zen horren errudun. XVII. mendean jesuiten hezkuntza Gramatikan oinarrituta zegoen eta leku garrantzitsua betetzen zuten Latinak eta Erretorikak. Irakasbide hori XVIII. mendean kritikatu izan zen ordea, ilustratu askok “latinitate”ek ikasbide praktikoei lekua kentzen zietela baitzioten eta beste askok ez baitzituzten jesuitek erabilitako testuak gustuko (T. Egido, 2004, 228.orria). XVIII. mende hasieran, irakaskuntza, Ilustratuek bultzatutako erreformaren ardatza zen, baina garai horretan ere krisi intelektual orokorra antzeman daiteke. Atsekabea nagusi da, irakaskuntzaren eta idazleen kalitateari dagokionez, eta hori dakarkigu begitara garaiko satiraren gorakadak, adibidez Aita Islaren *Fray gerundio* edo Cadalsoren *Los eruditos a la violeta*.

Baina, nori bideratzen zitzaion ekoizpen erretoriko hori? Aradraren ustetan, XVIII. mendean bi ekoizpen erretoriko mota bereizi behar ditugu, bata eskola esparruari begira idatzitakoa, eta bestea, irakurleko anitzago bati zuzendutakoa. Neurri handi batean, hartzailea klase altuetako jendea bazen ere (elizgizonak, abokatuak eta politikoak), idazle asko irakurleen ikasketa maila eskasaz ere kexu ziren, esan dugunez erretorika eskuliburu asko ikasle gazteentzat eginak baitziren (Aradra, 1997, 45-53 orr).

honetako erretorika liburu ezagunenetariko bat idatzi zuen, *La rethorica castellana* (1764), non ondo hitz egiten eta esaldi bat nahiz diskurtso bat ondo egituratzen irakasten zuen. Horneroren *Elementos de retórica* (1777) berriz gehienbat haurrei eta latinaren ezagupen teknikorik ez zuten helduei zegoen zuzenduta.

Eta azkenik Capmany –ren *Filosofía de la elocuencia* (1777) aipatu behar dugu, zeina, izenburuak adierazten duen bezala *elocutio*-ri eskainita dagoen. Antzeko bidetik doa Madramany *Tratado de la Elocución o perfecto lenguaje y buen estilo respecto al castellano* (1795) liburuan.

3.- VASCO-IBERISMOAREN TEORIA

Badirudi XVI. eta XVII. mendeko espainiar filologoek artean jakin-min handia piztu zuela Iberiar penintsulako hizkuntzen egoerak Erromatarrek hura konkistatu aurretik. Euskara, oraindik bizirik zirauen hizkuntza aurre-erromatarra izanik, ezinbestekoa zen orduan gai hau ukitzea gaztelaniaren jatorriari buruz hitz egitean. Eta Larramendik bere obretan eta bereziki aztertuko dugun honetan, teoria vasco-iberistaren aldeko jarrera erakusten digunez beharrezkoa iruditu zait eztabaida honen inguruko azalpen batzuk ematea.⁵

Aipatutako XVI. eta XVII. mendeko filologoen bi teoria ezberdin defendatzen zituzten: hizkuntza aniztasunarena, ondoko mendeetan hainbat zientzialariek berretsi dutena, eta vasco-iberismo deiturikoa. Azken hori XX. mende hasiera arte defendatua izan zen, Humboldt alemaniarrek internazionalki ezagutarazi zuelarik; teoria horixe izan zen euskararen apologien, eta hortaz Larramendiren obra honen ardatza.

Hizkuntza aniztasunaren teoriak, erromatarren aurreko eleaniztasuna defendatzen du. Korrante horren jarraitzaileen ustez, hizkuntza desberdin asko zeuden penintsulan elkarbizitzen: zeltiberiera penintsularen erdialdean, iparraldean, mendebaldean eta ipar-mendebaldean; hegoaldean berriz kartagotar, feniziar eta tartesostarren hizkuntzak. Iberiarrak, Andaluzia ekialdetik, sortaldetik eta Ebroko ibarraren ekialdetik zabaltzen ziren, eta euskaldunak azkenik, gaur egun dutena baino eremu handiagoa hartzen zuten, haien hizkuntza Pirinioetatik, Araba hegoaldetik, Errioxako ipar-mendebaldetik eta Burgoseko ekialdetik hedatzen zelarik.

Vasco-iberismo deituriko teoria aldiz, Genesis liburuko X. kapituluaren oinarritua dago, zeinean kontatzen den Jainkoak, Babelko dorrea eraikitzen ari zirelarik, hizkuntza nahaste bat sortu zuela eraikuntza hori eragozteko eta nahaste horretatik 72 hizkuntza jaio zirela. Vasco-iberisten ustez, euskara, 72 hizkuntzetako bat izan zen, eta Tubalek eta bere familiak hori eta iberiarra zabaldu zituzten penintsula osoan zehar, Erromatarrek iritsi aurretik. XVIII. mendean, teoria horren defendatzaile nagusia Humboldt alemaniarra izan zen, hain zuzen ere, Larramendi eta Astarloa euskal apologistak oinarri hartuta.

⁵Horretarako *Entre la pluralidad lingüística y el vasco-iberismo: ideas lingüísticas sobre la España prerromana en los siglos XVI-XVII* artikulua baliatuz batik bat (Oroz, 2008).

Espanian teoriaren alde nahiz aurka zeuden autoreen artean Juan de Valdes, Ambrosio de Morales, Juan de Mariana edo Bernardo de Aldrete aipa daitezke. Mariana bereziki nabarmendu behar da, Larramendiren Apologian aurkako gisa aipatzen delako.

Valdes-ek bere *Diálogo de la lengua* liburuan dio, hasieran vasco-iberismo-aren teoriaren aldeko zela, baina gero penintsulako jatorrizko hizkuntza greziera zela aldeztu zuela.

Ambrosio de Morales aldiz, aniztasun linguistikoaren aldekoa zen. Estrabon, Mela edo Tazito klasikoetan sostengua hartuz, erromatarren aurretik penintsulan hizkuntza ezberdinak zeudela dio, eta horien artean euskara. Hala eta guztiz ere ez dio euskarari inolaz ere Garibayk ematen zion hedapena ematen. Hori frogatzeko erromatarrek hispanikotzat jotzen zituzten hitz asko, gero euskaran agertzen ez zirela argudiatu zuen.

Juan de Marianak bere aldetik, Tubal penintsulako lehen konkistatzailea izan zela onartzen zuen baina vasco-iberismo-aren teoria ezeztatzen zuen, Ambrosio de Moralesen argudio berbera erabiliz.

Erromatarren aurreko hizkuntza aniztasun hori defendatzen zuen Bernardo de Aldretek ere. Honi buruz esan dezakegu, XIX. mendeko gramatika historiko konparatuaren aitzindarietako bat dela, etimologiak eta latinetik gaztelaniarako bilakaeran bokalek nahiz kontsonanteek jasan zituzten aldaketak aztertu baitzituen. Bere aburuz, gaztelaniaren jatorria latina da. Teoria hori gutxik onartzen zuten orduan. Izan ere, jatorria grezieran edo euskaran zegoela ziotenez aparte, beste batzuk erromatarren aurreko hizkuntza gaztelania zela uste zuten. López Madera esaterako azken teoria honen babesle sutsua zen, eta euskarari dagokionez, beti leku berean egon zela zioen eta ez zuela inoiz penintsula osoa hartu. Hori justifikatzeko, euskarak idatzizko bilakaera hutsala izan zuela zioen.

Hortaz, espainiar idazleen kopuru handi bat erromatarren aurreko aniztasun linguistikoaren teoriaren aldekoa zen. Euskal idazle gehienek, aldiz, azalpen hori baztertu eta haien hizkuntzari hedadura handiagoa eman zioten, hots, vasco-iberismo-aren teoriaren defendatzaile sutsu izan ziren. Horretarako, toponimiarekin zerikusitako argudio etimologikoak eta arrazonamendu historiko nahiz etnografikoak erabili zituzten. Horien artean Esteban de Garibay eta Andres de Poza aipatu behar dira. Larramendik muturreraino eraman zuen aztergai dugun obran azken horren argudio nagusia, hots, euskara hizkuntza filosofikotzat eta perfekzio eta arrazoi handikotzat hartzearena.

Poza-k lehen aldiz adierazten du, euskararen oinarrizko hitzen etimologia aztertzean, hitz bakoitzak bere kausa barruan daramala; bere ustez, Jainkoak eratutako hizkuntza batean bakarrik gerta daiteke hori.

Bestalde, vasco-iberismo-aren teoriari kritika egingo dioten euskal azterlaririk ere badugu. Horien artean Arnauld Oihenart (1592-1667), testu klasikoetan aditua, zeinak euskaldunak kantabriarrekin lotzeari uko egin baitzion. Hark, euskararen lehen hiztunak baskoiak izan zirela eta hauek gainera gaur egun Nafarroa dagoen lekuan bizi zirela azaldu zuen, esanez, gainera, Nafarroak muga zabalagoak zituela garaiotan. Hori zehaztuta ere, ez zuen euskara penintsula osoko hizkuntza bakarra izan zenik onartu nahi izan. Larramendi bere aldetik, nahiz gizon ikasia eta landua zen, Poza eta Echave apologisten eta Zaldibia edo Garibay historialariengandik hurbilago dago, Oihenarten espiritu kritikotik baino (L. Michelena, 1959, 5-6. orr). Aita José de Moret iruindarra ere Oihenarten partaide izan zen, hau da, baskoien teoriaren defendatzaile. Orokorrean, XVIII. mendean vasco-iberistek kritika gogorrak jaso zituzten espainiar autoreengandik eta horrek euskararen antzinatasunaren aldeko apologia uholde bat sorrarazi zuen. Apologista horien artean dago Larramendi (Caro Baroja, 1988, 16. orr).

4.- EGILEA

4.1.- BIZITZA ETA FORMAKUNTZA

Hurrengo lerroetan, Larramendiren bizitzaren hari nagusiak aipatzeari ekingo diot⁶.

Andoainen jaio zen 1690ko abenduaren 25ean. Aita, Domingo de Garagorri, andoaindarra zen eta ama Manuela de Larramendi hernaniarra. Bikoteak edukitako zazpi seme-alabetatik hirugarrena izan zen idazlea. Bere aitaren abizenari uko egitearen arrazoiak ez daude garbi. Jesuiten lagundian sartzean jada amaren abizena erabili zuen, Larramendi. Hola deitzen omen zioten Hernanin eskolan, baino badirudi aitaren umezurtz geratu zela 10 urte zituela eta hor dagoela abizena aldatzearen arrazoa.

⁶Iturrien inguruan, Tellechea Idígoras da Larramendiren bizitza sakonki aztertzen aitzindaria, eta haren hitzaurreetan ditugu Larramendiren bizitzaren argibide gehienak. Horretan oinarritzeaz aparte, Gipuzkoarraren hirugarren mendeurrenean egindako liburuan aurkitzen dugun Altunaren artikulua hartu dut oinarri (Altuna, 1991), bertan biltzen baitira Tellechearen lanetatik hartutako datuak, baita Altunak berak elizbarrutiko artxiboan aurkitutako beste datu batzuk ere.

Gero, bere osaba Migel de Minerrek Bilboko jesuiten ikastetxera eraman zuen oraindik oso gaztea zelarik, eta bertan hasi zen haren ikasketen ibilbide luzea. Osaba bere aita modukoa izan zen berarentzat, berak hezi baitzuen. Bilbon sartu zen bada Jesuiten Lagundian eta hortik Valladolidera joan zen apaiza izateko bi urteko nobiziatua egitera. Han sinatu zuen lehen aldiz “Larramendi” abizenarekin. Ondoren seminarioan egon zen urtebetez eta 1710ean Medina del Campon Filosofia ikasten hasi zen. Jarraian Teologia ikastera joan zen Salamancara; 1716an apaiz egin zen eta 1717an bukatu zituen Teologia ikasketak. Berehala, Teologiako irakasle laguntzaile eta Filosofiako irakasle izan zen hiru urtez, eta azkenik 1720tik 1721era hirugarren probantza egin zuen Valladoliden.

Ibilbide hori bukatuta, Filosofia beste hiru urtez irakastera bidali zuten Palentziara eta 1724an berriz Salamancara itzuli zen Teologia maisu moduan. Bertan jaso zuen miresmen handiena Larramendik maisu eta predikatzailer gisa. 1728an agintariek Valladolidera igorri zuten bertako fakultatean Teologia irakasle izatera. Ez dakigu nondik edo nola, baino Larramendiren beste alderdi bat agertu zen une hartan: euskal zaletasuna. Badirudi kanpotik zetozkion hainbat eraso eta euskararen inguruko mespretxuzko iruzkinak lagundu ziotela euskal zaletze horri, eta urte horretan bertan argitaratu zuen gure aztergai den *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España*. Larramendik aipatzen duen “la demostración previa al Arte” izango litzateke lehen obratxo hau. “Arte” hori berriz, bere euskal gramatika da, 1729an idatzitako *El imposible vencido*.

Oraindik Valladoliden zebilela, Mariana de Neuburg, Carlos II. aren alarguna zen erregina ohiaren gutun bat iritsi zitzaion bere aitortle izan zedin Baionan, eta horretan aritu zen hurrengo hiru urteetan. Urte horietan zehar, bitxia bada ere, ez zuen Larramendik euskararekin eta iparraldeko euskal literaturarekin harremanetan egon izanaren seinalerik eman. Etapa horren ondoren, Larramendiri txoko batera erretiratzeko grina sartu zitzaion, eta erregina kontra eduki zuen arren, goiz batean erretirora alde egin zuen. Donostian eduki zuten aurrena denboraldi batez, Jesuiten agintariek bere erabakia onartu nahi ez zutelako, eta azkenean Loiolako santutegira joan ahal izan zen 1734.urtean. Hor beste 20 lagun bizi ziren, zeinetatik 12 euskaldunak ziren, eta bertan bizi izan zen bere bizitzako asken 32 urteetan.

Loiolako egonaldiko lehen hamar urteei buruz ezer gutxi dakigu, dena den 1745ean, bere obrarik famatuena eta kritikatuena, hots, *Diccionario trilingüe del castellano*,

basquence, latín publikatu zuela jakinda, lan horretan ibili zela ondorioztatu behar da. Hori bera baieztatzen digute Hiztegi Hirukoitzaren hitzaurreko ondorengo hitzak, non Larramendik berak hitz egiten duen, lehendabiziko zatiaren XXVII. Kapituluari, *De la gran dificultad que he tenido en componer este Diccionario*.

1745etik 1754era Gipuzkoako arazo eta auzi guztietan ibili zen lanean, etxetik kanpo. Bere bizitzako azken hamar urteetan hiru obra idatzi zituen, baina arrazoi politikoengatik ezin izan zituen inprimatu: lehena *Corografía de Guipúzcoa*, 1754an idatzia, bigarrena *Historia de Guipúzcoa* eta hirugarrena *Sobre los fueros de Guipúzcoa*. Azkenik, Larramendi berak izenik eman ez zion baina Tellecheak *Autoapología* deitzen duen txostena ere idatzi zuen, non bere bizia kontatu eta bere burua zuritzea den xedea.

Argitalpen hauekin guztiekin ikus daiteke Tellecheak Larramendi ezagutarazi eta goraiatzeko egindako lan handia, izan ere, Tellecheak berak dioen bezala, “Tutto fa brodo. Todo enriquece esta sopa cuyo protagonista es Larramendi” (Tellechea & Caro Baroja, 1990, 21. orr). Eri zegoela hil egin zen Loiolan 1766ko urtarrilaren 29an, eta bertan lurperatu zuten omenaldi guztiekin.

4.2.- BERE OBRAREN ERAGINA ETA BERE AURKA EGINDAKO KRITIKAK

Michelena, Lakarra eta Sarasolaren lanak argitaratu aurreko kritika literarioaren aburuz Larramendiren idatziek aspektu teoriko eta apologetikoa zuten, hau da, bere lanak garaiko euskararen kontra zeudenak konbentzitzeko soilik idatzi zituen. Kritiko horiek Larramendi euskal literaturaren bultzatzaile izan zela aitortzen zuten, baino bere *Diccionario trilingue*-n neologismo asko sartzea eta, batez ere, berak defendatzen zituen ideiei uko eginez, euskararen inguruko lan guztiak erdaraz idaztea leporatzen zioten. Askok diote Sabino Arana eta haren jarraitzaileen garbizaletasunaren aurrekaria dela (Gómez López, 1991).

Mujikak, esate baterako, zera dio, euskaraz soilik “nahigabe” idatzi zuen arren, euskal literaturaren garapenean ohorezko postua duela Larramendik, hizkuntzaren apologista eta azterlaria den heinean. Baina, ikerlari horren ustez, haren benetako eragina soilik Sabino Arana eta bere jarraitzaileengan nabaritu zen. Gainera, euskararen arrazionalizatzeko lana egiten digu, askotan hizkuntzaz kanpoko ideiak hartuz, giro txar eta hutsune zientifikoaren aurkako babes psikologiko moduko bat egiteko, hain zuzen (Mujika, 1979, 185-186. orr).

Villasantek berriz, aipatutako literaturaren historiaren liburuan, Larramendik XVIII. mendeko bigarren erdialdeko eta XIX. mendeko lehen erdialdeko euskal idazleetan eragin handia izan zuela esaten digu, nahiz ondorengo horiek ez ziren izan haren neologismoen erabiltzaile sutsu, hizkuntza herrikoia jakile baitziren eta azken hori ez baitzuten alde batera utzi (Villasante, 1979, 144. orr).

Geroagoko kritikek - adibidez Michelena, Lakarra edo Sarasolarenak – idazlearen lanen ikerkuntzaren beharra erakustez aparte, lan horien benetako helburua gogorarazi digute. Larramendik bazekien euskararen erabilpena eskasa zela goi mailako testuetan, eta euskara hitz teknikoez hornitzeko egin zuen bere hiztegia. Larramendi euskararen apologista izan zen, baina Ricardo Gómez-en ustez, hori da hain zuzen ere hizkuntza bat duintzeko eman beharreko lehen pausua (Gómez López, 1991, 3. orr). Eta Sarasolak esaten digunez, “Hegoaldean bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa – hots, bertsolari eskolatu gabeena edo kristau ikasbide marjinalena – gainditu duten euskal idazlan gehienen atzean Larramendiren eragina – zuzena nahiz zeharkakoa – nabari daiteke. Eta maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahi eta ez jo behar zen haren hiztegiara. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik” (Sarasola, 1986, 321. orr)

Funtsean, Larramendiren ondare nagusia, bere ondorengoek eduki zuten euskal idazle kontzientzia, eta hizkuntzaren adierazpen eta erabileraren inguruko hausnarketa dira, Ricardo Gómez-en ustetan (Gómez López, 1991, 4. orr). Hortaz aparte, Michelena dioen bezala, Larramendi idazle bikaina da, bai euskaraz, bai erdaraz. Bere aurkarietatik gailentzen da imajinario zein ozarkerian, eta ez du barregarri geratzearen batere beldurrik, bere obrek umorezko ukitua baitute gehienek. Ezin da ukatu Larramendik asko asmatu eta faltsutu zuenik, baino material asko prestuki ere bildu zuen, eta euskal hizkuntza alorreko azterlanen garapen nabarmena eragin izana zor diogu (Michelena, 1959, 15 & 21. orr).

5.- IRAKURLE EDO HARTZAILEA

Aztergai dugun obraren izaera eta eragina ulertzeko Larramendiren *De la antigüedad y universalidad del bascuence* obraren irakurle edo hartzailea zein izan zitekeen ere hartu behar dugu kontuan.

Hasteko, berriro gogoratu nahi dugu ikergai dugun testua XVIII. mendeko euskal apologia bat dela eta horrexegatik vasco-iberismo-ren teoriaren testuingurura jo behar

dugula Larramendiren obra honen ustezko hartzailea definitu ahal izateko. Lehenago aipatu dugunez XVIII. mendeko euskal apologistek aurreko mendeetako vasco-iberistekin lotura zuzena dute, horietan oinarritzen baitira euskara maila gorenera altxatzeko. Bestalde, hartzaile zuzenak, kontrako teoriaren, hots, hizkuntza aniztasunaren teoriaren defendatzaileak direla ondorioztatu behar dugu.

Euskal literatura apologetikoa, euskara baztertzeak eragindako frustrazioak sortu zuen defentsa mekanismoa da eta Larramendiren apologia ere hein batean frustrazio horren fruitu da. Hori jakinda pentsatzekoa da apologia horien hartzaileak, batez ere euskal hizkuntzaren baztertzaileak direla. Halere, euskararen inguruko polemikak ez-jakinen interesa ere pizten zuen; *Bien sé que tengo que lidiar con los extraños y con los propios, con los doctos y los ignorantes: pues hasta el vulgo rudo quiere interesarse en esta lid. No importa: espero enmudecerlos a todos, y escarmentarlos a puros tajos de argumentos, y a reveses de retorsiones* (Larramendi & Perochegi, 2000, 19. orr)

Aipatutako baztertzaileen artean egon daitezke, Michelenak dioen bezala, Mayans, Ignacio Armesto eta Ambrosio de Morales esaterako (Michelena, 1959, 5. orr), eta konkretuki Aita Juan de Mariana, zeinari buruz jadanik hitz egin dugun. Larramendik bere obraren sarreran bertan aipatzen du: *¿Cosa nueva, dirá alguno, que se dé a luz el Arte de una lengua, que es irreducible a método y reglas! ¿Quién lo dice? Hombres eruditos, y entre ellos un Mariana. Ya después pediremos los despachos a esos eruditos.* (Larramendi & Perochegi, 2000, 21. orr). Badirudi Larramendik bihotzean iltzaturik zeramatzala idazle horren hitzak, zeinak euskara *rudem et barbaram linguam, cultum abhorrentem* deitu baitzuen. (Michelena, 1959, 9. orr).

Horretaz aparte, idazlanaren hasieran gure idazleak Juan de Ydiaquez-i igortzen dion eskutitza irakur dezakegu. Esleitzen dizkion titulu guztiengatik ondorioztatzen da gizon hura noble ospetsu bat zela. Gizon horri buruz gauza gutxi dakigu; 1726 et 1729. urteen artean sari edo titulu altuenak jaso zituen (jeneral gorena, Granada de Ega-ko dukea eta Espainiako ahaltsua), gainera badirudi gipuzkoarra zela, azkoitiarra zehazki. Horrela sinatzen du Larramendik eskutitza: *B.L.M. de V. Exc. su más rendido servidor, y paisano M.D.L* (Larramendi & Perochegi, 2000, 17. orr). Honako hau ere obraren irakurle zuzenetako bat da, autoreak berari eskaintzen baitio testua. Argitalpenerako laguntza ekonomikoa eman dion jauntxoa ere izan daiteke.

6.- OBRAREN ANALISI ERRETORIKOA

Analisi erretorikoari hasiera emateko, obraren *genus* erretorikoa zehaztea da emanen dudan lehen urratsa. Ondoren, Antzinateko erretorika tratatuek zehazten dizkiguten sorkuntza prozesuko bost atalen analisisia egingen dut.

Diskurtso erretoriko baten sorkuntza prozesuko bost ataletatik – *inventio*, *dispositio*, *elocutio*, *memoria* eta *actio* –, *inventio* eta *dispositio* dira edukiak garatzen eta antolatzen laguntzen dutenak. Bi atal horietan jarriko dut arreta, batez ere, baino horrek ez du esan nahi *elocutio*ri dagokion adierazpen maila alde batera utziko dudarik. Bestalde, *memoria* eta *actio*, jendaurrean egingo den diskurtso bat garatzeko ezinbesteko zatiak dira, ez ordea idatzizko diskurtso bat egiteko beharrezkoak. Hortaz, nire analisisian lehenengo hiruak soilik aztertuko ditut, diskurtsoaren zati nagusia den argumentazioari ohorezko lekua emanez.

6.1.- OBRAREN *GENUS*-A ETA ILDO NAGUSIAK

Jarraian obraren ezaugarri orokorrak eta argitalpenaren inguruko gorabeherak azalduko ditut, euskal literaturaren historia ezberdinak eta, batik bat, Larramendi berak idatzitako obra honen aitzinsolasa kontuan hartuz.

De la antigüedad y universalidad del bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas: Demostración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua Salamancan argitaratu zen 1728.urtean. Autorearen helburu orokorra, hurrengo urtean argitaratuko zuen euskal gramatikaren, hots, “*El imposible vencido*” deiturikoaren bidea prestatzeaz gainera, bi obra horiei justifikazio bat ematea zen. Gure lanari dagokion obraren helburu zehatza berriz, aipatutako euskararen baztertzailerei erantzuna ematea zen, teoria vasco-iberistaren inguruko argudioak emanez eta euskara maila gorenera altxatuz. Larramendiren hitzetan, *picado de las continuas chanzas, o burlas, que oigo contra el vascuence, me valgo de las mismas armas a su modo, y procuro defenderme como Dios me ayuda* (Larramendi & Perochegi, 2000, 19-20. orr).

Izan ere, garai horretan sortu zen “Espainiar Hizkuntzaren Errege Akademia” delakoa eta bertan, iberiar penintsulako jatorrizko hizkuntzei buruz hitz egitean ez zitzaion euskarari ia inongo lekurik ematen. Hori ikusirik, euskara Espainiako hizkuntzarik zaharrena zela eta antzinako garaietan lurralde guztietara zabaldua zegoela frogatu nahi izan zuen. Obratxo honetan darabilen idazkera, isekaria, erronka jotzailea eta apur bat iraingarria da (Villasante, 1979, 130. orr).

Apologia hau eta *El imposible vencido* Salamancan Teologia irakasle zen garaian idatzi zituen, *en los muy breves ratos que pude usurpar a más altas tareas*, berak esaten digunez (Mujika, 1979, 97. orr). Aipatu beharrekoa da testua bere sorkuntza literarioan zehar idatzitako lehen obra dela. Larramendik berak, bere sorkuntza prozesuari buruz zera dio: *Es obra de muchos años, no sólo por las dificultades intrínsecas, sino también porque no ha podido ser el principal asunto de mis tareas* (Altuna, 1991,15. Orr). Bestalde, eta berriro autorearen hitzetan oinarrituz, bere obra honek hiru helburu ditu. Lehena, euskararen inguruko lanak idazteak ematen dion atseginari esker, lan serio eta handiagoek sortzen dioten akidura arintzea. Bigarrena, munduari hizkuntza guztien artean zahar, dotore, eder eta jasoenetakoa den euskara ezagutaraztea litzateke eta hirugarrena euskara irainetatik babestea eta bere baztertzailleak nahasirik eta ezeztaturik ikusita, atsegina hartzea (Larramendi & Perochehi, 2000, 22-23. orr).

Obraren generoari dagokionez, atal honen aurretik askotan azaldu dudana moduan, apologia bat da ikergai dudana, hasteko Larramendik berak idazlanaren aitzinsolasean aipatzen duelako: [...] *descubro bastantemente mi designio, que ha sido acomodar el estilo al carácter de la apología (que de su natural no lleva el estilo muy suave, y suele gastar más picante que dulce [...])* (Larramendi & Perochehi, 2000, 19. orr).

Apologia zerbaiten aldeko diskurtsoa da, defentsa diskurtsoa. Platonek oratoria bi generotan ezberdindu zuen, apologia eta akusazioaren generoetan, eta Isokratesek ere bi genero horiek sartu zituen egin zuen oratoriaren zatiketean. Aristotelesek erretorika judiziala bi genero horietan banatu zuen, apologia diskurtsoa beti akusazio diskurtso batek eragiten duela esanez, pertsona batek bestea salatzen duenean, akusatua edo salatua izan denak bere burua defendatzeko premia baitu. Hemen logikoki ez gara ari auzitegi-erretorikari buruz, baino klasikoek esandakoa kontuan hartuz, esan beharra dago zentzu horretan Larramendirena apologia bat dela eta Aita Mariana bezalako idazleen salaketa diskurtsoek eragin zutela bere hizkuntza defendatzeko behar ezinbesteko hori. Apologista, akusazioari uko egitera eta salatzailearen diskurtsoak eratu duen “irudi” hori leundu eta garbitzera behartua dago. Behar horren erantzun erretorikoa da apologia (Ross, 1982, 254-255 & 257. orr).

Ezagutzen den lehen apologia, Sokratesena da. Bertan, erretorikaz baliatuz, Sokratesek gazteria galbideratu zuelako eta jainkoengan sinesten ez zuelako sententziaren aurkako defentsa sendo bat egiten du Platonek. Eredü hori jarraitu zuten gainerako apologiek,

baita Larramendiren honek ere, baliabide erretorikoak modu bikain batean erabiliz, eta berak aipatzen duen “pikante” hortaz baliatuz.

Bestalde, testu hau ekintza erretoriko zabalago baten parte kontsideratzen dudan heinean, testuaren *genus*-a finkatu behar da: funtsean, darabilen diskurtso mota eztabaidazkoa da, *genus deliberativum* izenekoa, irakurlegoa tesi batzuen egiaz konbentzitzea baita helburua. Dena den, tipo “puroak” ez dira existitzen. Apologia denez, diskurtso judizialaren ezaugarriak ere baditu gure obrak, aurkarien tesiak euskararen aurkako akusazio gisa hartzen baititu Larramendik. Horrela, *movere* eta *docere* helburuak dira nagusi obra honetan. Gainera, tradizio apologistaren barruan esan behar da Larramendi, garaiko beste idazleekin konparaturik, idazle pertsonala dela, erregistroetan anitza, eta ezustekoetan aberatsa. Bere bat-bateko umore ona, eta eztabaidatuz hartzen duen atsegina irakurlearekin erraz komunikatzeko tresnak dira (Michelena, 1988, 98. orr).

6.2.- INVENTIO⁷

Diskurtsoaren sorkuntza prozesuko lehen atalak planifikatze lana du eginkizun. *Inventio*-aren definizio arruntena, *Rhetorica ad Herennium* obra anonimoak dakarkiguna da: *Inventio est excogitatio rerum verarum aut veri similibus quae causam probabilem reddant*, hots, kausa sinesgarria egin dezaketen ideien eta argumentu egiantzekoen bilaketa eta aurkikuntza.

Bilaketa hori, eskola ariketetan ikasten eta praktikatzen zituzten “leku” edo topikoen multzo zabalean oinarritzen zen. *Loci*-ak hortaz, ideiak bilatzeko ikerketa formula egokiak dira. *Topoi* horiek, bestalde, diskurtsoaren zati guztietan erabil daitezke, hots, aurrerago aipatuko ditugun *exordium*, *narratio*, *argumentatio* eta *epilogum*-ean.

Hasteko, ideien bilaketa prozesuaren emaitza zehazteko, autoreak aukeratu eta formalizatu dituen gaiak eta ideia nagusiak aipatuko ditugu eta ondoren, erabili dituen iturriak.

Aurretik esan dugun bezala, obraren gai nagusia euskararen defentsa da. Hori garatzeko darabiltzan azpi-gaiak, berriz, euskararen antzintasuna, unibertsaltasuna eta bikaintasuna dira. Gai horiek guztiak obran zehar kapitulu ezberdinetan banaturik ditugu, geroxeago *dispositio* atalean ikusiko dugunez.

⁷ Atal honen sarrera egiteko Salaberriren tesiaren “Geroren sorrera” kapitulu hartu dut kontuan (Salaberri, 1997, 153-154. orr)

Bestalde, gai horiek jorratzeko erabili dituen iturrien artean, garai eta korrante ezberdinetako autoreak aurki daitezke.

Antzinateko Erretorikan gizon aditua dela ikusarazten digu autoreak, batik bat Zizeron eta Kintilianoren obrei egiten dien erreferentziek aditzera ematen diguten bezala. Kintilianoren *Institutio oratoria* lanaren kapitulu ezberdinak eta Zizeronen *Academica* obraren zenbait atal aipatzen ditu. Horietaz aparte beste klasiko batzuen obrak ere gogora ekartzen ditu, hala nola, Horazio-ren epistolak, Platonen *Cratilo*, Prisziano, Dionysio Alexandrino, Eustachio edo Nizeforo Calixto historialariak.

Klasikoez gain, bere garaikide diren beste hainbat autore ere izendatzen ditu, hots, teoria vasco-iberistari buruz aritu garenean jadanik aipatu ditugunak. Horien artean, bere aurkarizat hartzen zituen Ambrosio de Morales – eta hain zuen bere *Historia Latina* - eta horren ikasle izan zen Juan de Mariana jesuita eta historiagile ospetsua. Mariana sarritan aipatzen du obran zehar eta bereziki hain iraingarria zeritzon *Historiae de rebus hispaniae* obraren lehen liburuko bosgarren kapitulua, bertan idatzi baitzuen euskararen aurkako esaldi hau: *rudem, et barbaram linguam, cultum abhorrentem*.

Bestetik, bera bezala euskararen alde zeuden beste hainbat ere aipatzen ditu, hain zuzen Oihenart, Echave, Poza, Garibay, Moret, Cortés eta Gabriel Henao. Dena den, Poza-ren izena behin baino gehiagotan aipatzen du, Penintsulan zehar barreiatutako euskal toponimiari buruz ari denean. Gainera, askotan izendatzen ez baditu ere, badakigu autore horiek bere obraren iturri garrantzitsuak izan zirela.

Vasco-iberismoaren eztabaidarekin lotura zuzenik ez zuten beste zenbait autore ere erabiltzen ditu Larramendik iturri moduan, besteak beste, Julio Escaligeroren *De causis linguae Latinae*, eta Julioren seme izan zen Jose Escaligeroren *Tractatum de linguae Europae* lanaren pasarte bat. Horrez gain Alonso Veneroren *Enchiridion de los tiempos* historia eskuliburua aipatzen du, baita Athanasius Kircher jesuita eta eruditoa ere.

Azkenik, gogoan izan behar da, Espainiako Errege Akademiaren hiztegiaren lehen alea, aztergai dugun obraren argitalpena baino urte bat lehenago kaleratu zela. Larramendik horren hitzaurrea hartzen du eredu kontra argumentatzeko, batez ere laugarren eta bosgarren kapitulutan. Gainera, hiztegi horrek dakartzan etimologiak erabiltzen ditu horiek errefusatu eta hitz berberen euskal etimologiak egiteko.

6.3.- DISPOSITIO

Dispositio izeneko atalaren xedea, *inventio*an aurkitu eta garatutako ideien egituraketa da. Aitzitik, latindar erretorika liburu gehienetan, diskurtsoaren zati garrantzitsuenen analisia, *inventio*aren barruan egin izan da. Salaberriren formatua jarraituz ordea (Salaberri, 1997), atal horiek *dispositio*an sartzea erabaki dut, Aristotelesek zioen modura berez horren parte direlako.

Hortaz, *dispositio*a aztertzeko, obra honetan azaltzen diren ideien antolaketa azalduko dut. Kanpoko egituraketari dagokionez, Larramendik kapituluka banatzen ditu edukiak, hamasei kapitulutan zehazki. Gehienak *argumentatio* atala osatzen duten tesiak dira. Aurretik, eskaintza bat eta obraren Sarrera kokatzen ditu: bi elementu horiek osatzen dute obraren *exordia*. Esan dezakegu *narratio* deritzon zatirik ez dagoela obra honetan, lehenengo kapituluan zuzenean bere tesiak argumentatzeari ekiten baitio Larramendik.

Idazleak garatzen dituen gaiak dagokienez, lehenengo kapitulua euskararen antzintasunari eskaintzen dio. Bigarrenean, euskararen unibertsaltasuna defendatzen du, baita hirugarrenean ere. Laugarren eta bosgarren kapituluetan, euskararen antzintasuna eta unibertsaltasuna defendatzen ditu, Espainiako Errege Akademiaren hiztegia kritikatu eta A letratik C letrarainoko euskal etimologiak emanez. Ondoren, euskararen bikaintasuna defendatzen du, honako pausuak jarraituz: Seigarren kapituluan euskarak jaso dituen kritikak zerrendatzen ditu lehenik, gero gezurtatzeko. Horrela, zazpigarrenean, euskararen bikaintasuna defendatzeko emango dituen tesi ezberdinentzako sarreratxo bat egiten du; zortzigarrenean, bikaintasun horiek aztertu eta frogatzeko jarraituko duen “egiazko arau” delakoa aurkezten digu eta bederatzigarrenetik hamabosgarrenera, atalez atal, gainerako hizkuntzekin konparatuta euskarak dituen bikaintasunak azaltzen dizkigu. Honaino tesi desberdinen defentsa. Hamaseigarren kapituluan, euskarak latina, gaztelera, frantsesa eta italierarekin dituen irudizko hizketaldi batzuk ditugu. Epilogoaren aurreko atal dramatiko hori, umoreari eta irudimenari eskainitako literatur elementu bat da. Argumentazioaren atalean sartuta dago eta ordura arteko eskema logikoa baztertuz bere tesia defendatzeko beste bide bat da. Bukatzeko, lanaren konklusio labur bat egiten digu Larramendik.

6.3.1.- EXORDIOA

Exordioa diskurtsoaren lehen zatia da. Bertan idazlea irakurlearen arreta bereganatzen saiatzen da, hots, hura limurtzeko lehen aukera da. Garavellik dioen bezala, *exordioan* autoreak gaia azaltzen eta justifikatzen du, trebetasunez bere aurkariak ahuldu eta bere burua defendatzen du (Garavelli, 1991, 75. orr). Salaberrik gaineratzen duenez, *exordioak* testua tradizioarekin eta irakurle posibleekin harremanetan jartzeko helburua ere badu (Salaberri, 1997).

Gainera, hartzaileen aurreiritzien eta auziaren izaeraren arabera, auzi hori arrakastaz defendatzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izaten da. Horrela, auzi mota desberdinak bereizten dira: *genus honestum* (hizlariak guztia bere alde dauka), *genus humile*, (auziak ez du interesik sortzen), *genus anceps*, (auziak aldi berean aldeko eta kontrako jarrerak sortzen ditu), *genus admirabile*, (auziaren aurkako jarrera da nagusi) eta azkenik *genus obscurum*, (auzia argitzea oso zaila da). Kasu honetan, eztabaidagarri den gaia *admirabile* kontsidera daiteke, euskararen aurkako argitalpen eta aurreiritziei aurre egin behar baitio Larramendik. Horregatik, *proemioan* bertan ekingo dio defentsari.

Exordio honetan bi zati nagusi aurkitzen ditugu, batetik, Juan de Idiáquez-i zuzendutako eskaintza eta bestetik, Larramendik Sarrera deitzen duen atala. Eskaintzan, ikusiko dugun bezala, liburuaren gaia aurkeztu ez ezik, liburuaren muina den euskararen bitartez, azkoitiar noblearen laudorioa egiten du. Sarrera deitzen duen zatian, berriz, argitaratzeaz duen *Arte de la lengua Vascongada* liburuaz hitz egiten digu, esanez bere apologia, *Artearen* aurka sortuko diren erasoez defendatzeko idatzi duela.

Exordio ororen xedea irakurlea erne, otzan eta onbera mantentzea denez, hemen ere horretara zuzenduta daude Larramendik darabiltzan formula edo *loci*-ak.

Attentum parare helburua lortzeko, hau da, irakurlea erne edukitzeko zenbait topiko erabiltzen ditu. Horrela, obran zehar defendatuko duen auzia garrantzi handikoa dela adierazten du lehenik. Oso interesgarria deritzot liburuaren gaia Juan de Ydiaquez-i azaltzeko moduari: gaiak – euskararen goraipamena eta defentsak- sorraraziko dion atsegina aipatzen du lehenik eta gero, euskararen handitasun nahiz bikaintasunaz mintzatzen da. Bertute horien aipamenak noblearen eta irakurlearen arreta piztea lortzen dute. Baina gainera euskararen gorazarrea, bere babesle den noblearen gorazarre bilakatzen du: horrela, eskaintza osoa euskararen eta noblearen goraipamena da. Esan daiteke, apologia *exordioan* bertan hasten dela: *el vascuence es proprísimo en la*

significación de sus voces y hizo a V.Exc. muy propio y nacido para todo lo bueno y grande...el vascuence es muy cortés en sus fórmulas y expresiones y formó en V. Exc una viva escuela de la cortesanía y discreción... etab. Esan beharrik ez dago noblearen onespina ere lortzen duela zuzentzen dizkion laudorioen bidez, *captatio benevolentiae* topikoaren adibide bat baita azkenean eskaintza osoa. Gainera, gaia bera, nobleari eta irakurleari dagokion auzi gisa aurkezten du: *tua res agitur* esatean, gaiaren inguruko auzia irakurleekin konpartitzen du, denei dagokien auzia da.

Bestalde, irakurlearen arreta piztu eta bizi mantentzeko (*attentum et docilem*) interesgarria da Sarreran liburuxkaren estiloaz eta hizkuntzaz esaten duena, hots, naturaltasunez eta ausardiaz beteta hitz egingo duela, leuntasuna baztertuta, estilo bizia eta zirikatzailea baitagokio, bere ustetan, genero apologetikoari: *Con esto descubro mi designio, que ha sido acomodar el estilo, no sólo al carácter de la apología sino mucho más al aire de un vascongado amartelado de su lengua*. Bizitasun hori umorearen eta jakinduriaren erabilpenaz lagunduko du: *así me persuado que sucederá en lo escrito y que todos lo leerán de buen humor y en tono más de festividad que de aspereza*.

Eskaintzan ez ezik, *Benevolum parare* topikoaren erabilera nabarmena da sarrera osoan. Jakina denez, hori lortzeko modu ezberdinak daude. Lehenik irakurlearen egilearekiko borondate ona, umiltasunez mintzatuz lortzen da. Hori egiten du gure autoreak idatzi duen liburua “*este tratadito*” izendatzen duenean eta erabiliko duen tonuari buruz ari denean, inor mindu nahi ez duela aitortzean. Aurkarien aurkezpen negatiboa egitea ere irakurlea gure alde jartzeko beste errekurtso bat da. Larramendik hori etengabe egiten du obran zehar, baita sarrera honetan ere noski. Lehenik, norekin “borrokatu” beharko duen adierazten digu. Mariana ere aipatzen du, beti tonu ironiko batez, eta azkenik, egiten ari den lanari buruz bere aurkariak egingo lioketen galdera eta ihardespen posibleak azaltzen dizkigu, horiei modu nahiko iraingarrian erantzuten dielarik. Halere, Sarreran aurkaria errespetuz aurkezten du beraien erudizioa gogora ekarriz: modu horretan, aurkaria ez ezik, bere burua ere goratzen du: *Y especificando en particular lo que podrá notarse más, digo, que reconozco a la Academia Española por un gremio muy respetable así por otros capitulos...como por componerse de sujetos de una literatura conocida y exquisita erudición*.

Orokorrean, liburuxkaren gaia, estiloa eta helburua arreta pizteko ezinbesteko elementu gisa aurkezten ditu.

6.3.2.- ARGUMENTATIO

Argumentatio deituriko atala diskurtso erretorikoaren hirugarren zatia da eta obra honetan atal guztietatik garatuena dela esan behar da. Funtsean, hizlariaren ikuspuntua onargarria dela frogatzeko argumentuak aurkeztean, eta aurkariaren frogak deuseztatzean datza. Hizlariak bere tesiaren aldeko frogak aurkezteari *confirmatio* deritzen, eta aurkariaren frogak suntsitzeari, berriz, *refutatio*. Izan ere, *exordio*aren funtzioa, argumentazioa hasi baino lehen hartzailea informatu eta haren jarrera bereganatzea den bezala, *argumentatio*a, Lausberg-ek dioenez, diskurtsoaren muina eta atal erabakigarria da (Lausberg, 1983, 348. orr).

Bestalde, Erretorikak eskaintzen dituen baliabideak (*probationes artificiales*) hiru motatakoak izan daitezke, Kintilianok esaten duen bezala: *omnis igitur probatio artificialis constat aut signis aut argumentis aut exemplis* (5, 9, 1). Lehenengoak, arte erretorikotik kanpo dauden frogekin erlazio estua dutenez, beste biak soilik hartuko ditugu kontuan gure analisisian. *Argumenta* delakoak, silogismo edo entimema deituriko eskema argumentatiboez eta *loci* deituriko ideia edo eduki-eremu orokorrez osatuta daude eta arrazamendu deduktiboa eratzen laguntzen dute. Bestalde, entimemak, silogismo osatugabeak baino ez dira; beste hitzetan esateko, egiantzekoak soilik diren premisatan oinarritutako baieztapen edo arrazamenduak, lengoia zientifiko-logikotik kanpo erabiltzen diren egitura erretorikoak. Silogismo eta entimemak osatzen dituzten premisak eratzeko, bestalde, *loci* desberdinak erabil daitezke. Zizeron eta Kintilianok adierazi bezala, *loci* horiek gauzatan eta pertsonatan oinarritzen dira: *loci a persona* eta *loci a re*. Aurrenekoak zerrenda luze xamarra osatzen duten artean, bigarrenak oso ugariak dira eta ekintzen inguruko faktoreetan dute sorburua (*ante rem, in re, circa rem eta post rem*)⁸. Azkenik, adibideak edo *exempla*, arrazamendu induktiboa gauzatzeko baliabide ezinbestekoak dira. Ondorengo lerroetan, iturri klasikoek aipatutako *argumenta* eta *exempla* horien erabilpenaz arituko gara.

Larramendiren kasuan, autoreak berak adierazten digu lehenengo kapituluan zein motatako argudioak erabiltzeko asmoa duen: *voy a probar la aserción puesta en todo rigor escolástico, y con silogismos bien formados* (Larramendi & perochegei, 2000, 27. orr).

⁸ Ekintzetan oinarritutako topikoen bilduma oso luzea denez, ez dugu hemen zerrendatuko (Lausberg 1983).

‘Zorroztasun eskolastikoa’ esatean, Erdi Aroko unibertsitateetan erabat garatu zen argudiatzeko metodoa adierazi nahi du. Metodo hori, eztabaidagarria den tesia defendatu edo kontrastatzeko egitura silogistikoa erabiltzean datza. Hortaz, metodo eskolastikoaren helburua, egiaztat jotzen dena, tesi desberdinen arteko aurkakotasun aktiboa medio, gatazka dialektikoaren bitartez frogatzea da (Cattani, 2003, 45-51).

Esan dugunez, Larramendik metodo eskolastikoa, hau da, egitura silogistikoan oinarritutako arrazonamendua, hartzen du oinarri. Silogismo bat, premisa bi edo gehiagoz eta horietatik ateratako ondorioaz osatuta dago. Gainera, aipatu dugun bezala, silogismo bati premisa bat edo ondorioa falta zaionean, entimema deitzen zaio; horrelako silogismo erretorikoak dira gehienbat Larramendik erabiltzen dituenak. Bestalde, esan behar da sarritan eratzen dituen argumentuak falaziak direla, hau da, itxurazko egi balioa baino ez duten argudioak: horrelakoak oso maiz erabiltzen dira pertsuasioa lortzeko, eraginkorrak baitira nahiz Logikaren ikuspuntutik onargarriak ez izan. Horrela, oso maiz aurkitzen ditugu *ad hominem* falazia (aurkaria gutxietsi edo erasotzea), *ad ignorantiam* (kontrako frogarik ez dagoela esanez baieztapen bat egiaztat ematea) eta baieztapen orokor faltsuak. Dena den, argumentazio erretoriko batean inportanteena pertsuasioa lortzea denez, falaziek funtzio inportantea betetzen dute obra honetan eta, orokorrean, argumentazio erretorikoetan.

Falaziez gain, *reductio ad absurdum* egituraren erabilera ere azpimarratzekoa da: argudiatzeko modu hori, egitura silogistikoan oinarritutako egitura bat da non tesiaren aurkakoa aurkeztu ondoren, horren ezintasuna edo itxuragabekeria agerian uzten den.

Bukatzeko, *exempla* delakoak eta horien antzeko diren autoritateak etengabe erabiltzen ditu froga inductibo gisa. Esate baterako, Larramendik oso sarritan izendatzen ditu historiagile, akademiko eta autore klasikoak. Tesiak frogatzeko jatorri erlijioso nahiz profanoa duten *exempla* edo adibideak ere baliagarriak dira eta Larramendik bereziki erlijiosoak erabiliko ditu. Hortaz aparte, esan behar da Larramendi gehienbat irakurleko ikasiari zuzentzen zaiola eta horrek ere baldintzatzen duela darabilen argudiatzeko era.

Ondoko lerroetan aurreneko bost kapituluetatik hartutako adibide batzuk eskainiko ditugu aipatutako froga mota desberdinak nola gauzatzen diren azaltzeko, gure lanaren luzera mugatuak ezinezkoa egiten baitu kapituluz kapitulu argumentazioa aztertzea.

6.3.2.1.- EGITURA SILOGISTIKOAREN ERABILERA

Esan dugun bezala, kapituluetako izenburuak defendatu nahi dituen tesien aipamenak dira. Lehenengo kapituluaren tesi nagusia –T deituko duguna- izenburuan bertan ematen digu idazleak, beste gainerako kapituluetan egingo duen bezala: *El vascuence es la lengua más antigua de España*. T deitu dugun baieztapena, premisa batzuetatik ondoriozta daitekeen emaitza denez, premisa horiek aipatuko ditu. Lehena, baieztapen orokor bat da eta, autoreak berak dioen bezala, kontrakoa frogatzea ezjakintasunagatik ezinezkoa denez, egiaztat ematen du lehen premisa hori (*ad ignorantiam* falazia): *sentemos en primer lugar que el vascuence en España es lengua más antigua que el romance en todos sus dialectos, que la arábica, que la gótica, que la latina, y que cuantas otras lenguas se oyeron en ella por la inundación de bárbaras naciones. Esta suposición no me la disputa nadie ni puede...que todas son cosas imposibles de probar*. Ondoren, bigarren premisa bat ere egiaztat jotzen du arrazoi beragatik eta autoritateek esandakoak bere uste hori berresten duelako *que el vascuence es una de las lenguas primeras que entraron en España después del Diluvio. Esta suposición tampoco me la disputarán por ser ella evidente de la concesión misma de los historiadores y de los que tratan de propósito el punto de las lenguas de España*. Azkenik, hirugarren baieztapen bat ondorioztatzen du aurreko bi premisetatik, hain zuzen ere, izenburuak aipatu duena: *que la lengua bascongada en aquellos primitivos tiempos fue lengua común y universal de todos los españoles*.

Hasierako tesia defendatzeko bigarren froga bat ere eskaintzen du, hori ere egitura silogistikoa duena: *el vascuence es en primer lugar más antiguo en España que cuantas lenguas distintas se conocen en ella y se han conocido, como consta de la primera suposición (Premisa 1); por otra parte, es más antigua que cuantas lenguas pueden imaginarse con algún fundamento (Premisa 2); luego absolutamente es la más antigua, es la primitiva, es la única que hubo en los primeros tiempos de la población de España*. Azken ondorio hori berresteko, baieztapen orokor bat ematen digu: *porque todos comúnmente son de sentir, que nuestra España no tuvo otro poblador que a Tubal*.

Aipatzekoa da baita ere, tarteka metodo eskolastikoan hain ohikoak ziren *distinguen* erabilera, hau da, aurkarien tesiak errefusatzeko tesi horiek zatitan banatzea eta zati horietako batzuk onartu arren, gainontzekoa ezeztatzea: (II kapituluan) *Muchas voces, dicen, hay del lenguaje antiguo, que no se hallan hoy en el vascuence: luego, el*

vascuence no fue lengua universal en los tiempos antiguos. Doiles de barato segunda vez el antecedente, y al consiguiente vaya un distinguo que los ponga en el estado de la cuestión. No fue universal en todos los tiempos antiguos, pase; en algunos, y en los más antiguos, niégola.

Tankera horretako egitura silogistikoak froga induktibo ugariren bidez berresteari ekiten dio Larramendik. Aipatzen dituen *exempla* gehienak, euskaratik hartutako etimologiak dira. Horiek, bere hitzetan, batez ere Espainiako toponimian barreiatuak dauden jatorri ezezaguneko izen asko lehen hizkuntza primitiboaren aztarnak, hots, euskararen antzintasunaren aztarnak direla frogatzen dute.

Esan behar da bukatzeko, *elocutio*-ri eskainitako atalean ikusiko dugun bezala, argumentazioan estilo ausarta, gogorra, oparoa eta askotan ironiaz nahiz emozioek sorrarazitako esamoldez josia erabiltzen duela. Horregatik, erraz ulertzen da zergatik maiz *ad hominem* falaziak tartekatzen dituen, nahiz Sarreran esan aurkarien jakinduria errespetatuko duela: *Bien puede Ambrosio colgar por esta vez su carabina como alhaja inútil...Es este un modo de argüir muy ineficaz* (II kapitulua). Gainera, aurkarien tesiak indargabetzeko, Klasikoen ezagutza erabiltzen du, aldi berean haien ezjakintasuna agerian utziz eta bere jakinduriarekin kontrastea azpimarratuz: *Y es que la fuerza que faltaba al argumento, la puso de su casa la pasión, que hace mirar las cosas con vista gorda aun a los que saben hilar delgado; siendo verdadero lo que dice Cicerón, 'plerique malunt erare eamque sententiam quam adamaverunt, pugnacissime defendere...'*

6.4.- ELOCUTIO

Obraren analisi erretorikoa bukatzeko, *elocutio* izango da aztertuko dudana produkzio erretorikoaren azken atala. *Inventio* eta *dispositio* faseak aurre-testualak lirateke hein batean; behin jakinda zer esan, noiz eta zein ordenetan, *elocutio* atalari dagokio hori guztia linguistikoki artikulatzea. Mortara Garavelliren hitzetan, “la *elocutio* es el ropaje y el ornamento de un contenido” (Mortara Garavelli, 1991, 124. orr).

Elocutio-k diskurtsoaren forma edukiaren arabera lantzen duen neurrian, *aptum* bertutea eduki behar du kontuan, hau da, diskurtsoaren kanpoko eta barruko elementuen egokitzapena. Hori lortzeko, hiru bertute edo ezaugarri bete behar direla diote iturri klasikoek (Lausberg 1983, II, 11 ss.): zuzentasun lexiko eta gramatikala (*latinitas*, *puritas*), argitasuna, diskurtsoa ulergarria gertatzeko (*perspicuitas*) eta edertasuna

(*ornatus*). Ondoko lerroetan, Larramendik darabilen hizkuntzaren ezaugarri nabarmenenak azpimarratuko ditugu, batez ere, *ornatus*-ari dagokionean.

Puritas eta *perspicuitas* bertuteei buruz esan daiteke hizkuntza zuzentasunez darabilkiela eta bere pentsamoldea argi azaltzen duela nahiz kontzeptuen eta ideien pilaketak esamolde trinkoak egitera bultzatzen duen. Izan ere, autoreak argumentazioa frogaz bete nahi du bere jakinduriaz irakurlea txundituta uzteko. Orokorrean, esaldiak eta periodo sintaktikoak ez dira luzeak, baina pasarte gehienetan nagusi da lengoia zientifikoan ohikoa den artikulazio sintaktikoa eta adibideen pilaketa.

Ornatus-ari dagokionean, tropoen eta figuren erabilera nabarmenduko dugu (Lausberg 1983 II, 57 ss.). Tropoa, adierazpide propio edo arrunt bat irudizko adiera batez ordezkatzean datza. Horrelakoen kopurua aldatu egiten da iturrien arabera: *Rethorica ad Herennium*-ek adibidez, 10 aipatzen ditu: onomatopeia, antonomasia, metonimia, perifrasi, hiperbatona, hiperbolea, sinekdokea, katakresia, metafora eta alegoria. Kintilianok berriz 13 (esandakoei metalepsia, epitetoa eta ironia gehituz).

Larramendik tropo ugari erabiltzen du, batez ere, metafora, ironia eta hiperbolea. Metaforen adibide batzuk hauek dira: *estoy para dar a luz un Arte de la lengua* (19), *escarmentarlos a puros tajos de argumentos* (19), *la aduana de la crítica* (21), *que cuantas otras lenguas se oyeron en ella por la inundación de bárbaras naciones* (27), *el principal argumento de los contrarios es un pelotón de lana* (33) *dispáranos, pues, la caravina de Ambrosio* (33) etab.

Larramendik etengabe erabiltzen duen beste baliabide bat ironia da, umorea oso gustuko duen idazlea baita. Esaterako: *para la identidad, o distinción de un lenguaje, o no hace nada el caso, o no es más fuerte el defecto y pérdida de algunas voces, que la adición y ganancia de otras muchas, como es evidente. Pues ábate la consecuencia: luego hoy en día no se habla romance en España* (34); *Preguntóle, si ha leído a Mariana, Morales, Ocampo, Garibay, Moret, Cortés, y otros. Si no los ha leído, temo que no se le han hecho bien las pruebas de erudito, cuando entró a ser Académico.*” (48); edota Espainiako historiako garrantzizko gatazka baten adibidea jarriz aurkariaren metodoa aplikatzen dio afera horri: *Pues venga un crítico, como nuestro académico, escriba un discurso con este título “de la batallas de Villaviciosa”, y después de haber dicho cuatro cosas abstractas, afectando pyrrhonismos concluya, que de la batalla de*

vilaviciosa sólo ha quedado la memoria de que la hubo (49-50). Adibideen zerrenda dezente luza daiteke.

Hiperboleak ere sarri erabiltzen ditu Gipuzkoarrak. Tonu “gehiegizko” hori elementu garrantzitsua da, bere helburua euskara goratzea baita. Superlatibo ugari erabiltzen ditu, besteak beste: *el vascuence es ordenadísimo* (15), *el vascuence es de una armonía sin par* (16), *no hay país de mayor condición* (16), *ese es modo baratísimo de argüir* (21); *¿Quién más lo ha dicho? Muchísimos vasconados doctos* (21), etab.

Nabarmenenak diren *tropos* horietaz aparte, beste batzuk ere aurkitzen ditugu, tarteka soilik erabiltzen baditu ere. Lehena antonomasia da (izen berezi bat epiteto moduan erabiltzea edo izendatu nahi denaren ezaugarri bat adieraztea, hitz edo perifrasi batez baliatuz), adibidez: *no pondré límite a las ansias con que ruego al Altísimo* (17), *hombres muy eruditos, y entre ellos un Mariana* (21), *Podía pues el académico ahorrar palabras superfluas* (48), *¿Le parece que es un Evangelio todo lo que dice en aquel discurso?*(49)

Sinestesia ere (hitz baten esanahia, berez dagokion zentzumen esparrutik beste batera eramatean) tarteka erabiltzen du, esate baterako: *sintaxis de acciones heroicas* (16), *sonido escabroso* (16), *condición blanda* (16), *estilo más picante que dulce* (19), *tintura de gramática* (21), *verdad llana* (28) etab.

Bestalde, hitz multzoen barruan *ornatus*-a figuren bidez lortzen da. Errepikapenezko figurak, hitz pilaketak eta mailaketak, konparaketak eta prosopopeiak erabiltzen ditu batez ere autoreak. Errepikapenen artean anafora deiturikoak dira nagusi: *una suavidad varonil, una cortesanía noble, una afabilidad majestuosa, una naturalidad culta y limada* (17); *es la mas antigua, es la primitiva, es la única que hubo* (29); *cuyos inventores, cuyos nombres, cuyo nacimiento se ignora* (31); *sin más apoyos que respuestas al aire; sin más razón que el sic volo, sic jubeo; sin más pruebas que conjeturas y mohinas* (32); *tan natural, tan sin violencia, tan conforme al significado* (51). Polisindetona berriz, anaforaren antzekoa da, baino kasu honetan juntagailua da errepikatzen dena: *Ellos ni son árabes, ni godos, ni vándalos, ni alanos, ni cartaginenses, ni romanos, ni griegos, ni fenicios* (44).

Hitz pilaketa ere maiz aurkitzen dugu: *esparcidos en montes, ciudades, países, familias, que no eran nombres sino del lenguajes de los españoles (37); ¿cuándo empezó el vascuence a inventarse, hablarse, extenderse? (27)* etab.

Simila ere galanki topa dezakegu lerro artean. Figura hau izaki bizidun eta bizigabeak, jokaerak, ekintzak, prozesuak edo gertakariak elkarrekin konparatzean datza, esaterako: *muchos tienen en su casa piedras preciosas, que no supieran discernir de vidriecitos brillantes, si no fuera por haberlo oído, ¿Qué importa que el vascuence tenga tan lúcidas perfecciones, si no hay ojos que se apliquen a examinarlas? (22); Son en fin algunos enemigo rateros, que metidos como ranas en un charco cenagoso de necedad e ignorancia, tienen abilantez para garlar, mientras no se les tira una piedra que los atemorice (23); para que las voces nazcan del griego, del latín, francés, italiano, con tan poca verosimilitud, que se hace más creíble haber nacido una estrella de un ratón (51).*

Figurekin bukatzeko, prosopopeia edo pertsonifikazioa aipagarria da. Adibidez: *pues no como quiera descubro a mi lengua vascongada, sino que la remozo en su ancianidad, hasta dejarla convertida en dama de lenguas: averiguo su origen y nobleza: le doy un rostro bellissimo, y en un cuerpo gentil un alma justísima: toda en fin la prendo, como dicen, de veinte y cinco alfileres, no buscado en otras tiendas, sino los que ella misma tenía ociosos en su tocador (23); lenguajes duendes (31).*

Azkenik, bere estiloaren ezaugarri nabarmena iruditu zait ere Larramendik, argumentuak emateko bereziki, egiten duen latinismoen erabilpen oparoa, adibidez: *per non usum (34), distingo (35), ad initio (38), atqui (43), ergo (43), in bonam partem (48), ex tripode (48), ut sic (49), sub modio (52)* etab.

7. ONDORIOAK

Larramendiren idatzi honetan, Jesuitek garai hartan jasotzen eta irakasten zuten prestakuntza erretoriko sendoa agerian gelditu da. Jesuitek sortutako *ratio studiorum* eskola ereduan, *ornatus*-ean oinarritutako joera barrokoa nagusi zen, eta neurri batean horrela islatzen da klasikoen eragina ere nabarmena den apologia honetan. Gainera, Larramendik, elizgizona bada ere, gai erlijiosoak ez duen eta predikazioarekin lotuta ez dagoen obra honetan, erretorika menperatzeak edozein jakintza esparrutan duen eraginkortasuna frogatzen du.

Bestalde, obra honetan, diskurtso apologetikoa den heinean, argumentazioa da atalik garrantzitsuena, testuaren muina. Ezaugarri hori obraren hasieran bertan ikus daiteke, Juan de Idiáquez-i zuzendutako Eskaintzan eta Sarreran, non ohiko topikoekin batera, ondorengo kapituluetan defendatuko dituen tesiak aipatzen hasten baita, euskararen defentsari indartsu hasiera emanaz. Gainera, *exordiotik* argumentaziora zuzenean pasatzen da, azken hori delarik esan dugunez obraren atalik zabalena.

Argumentatzeko teknikari dagokionez, metodo eskolastikoaren erabilpena da bereziki azpimarratzekoa. Zentzu horretan, egitura silogistikoa duten argumentu deduktiboak oso maiz erabiltzen ditu. Horretaz gain, bere argumentatzeko eran falazia ugari aurkitzen dira. Dena den, horrek ez dio indarrrik kentzen erretoriko iaioa den gure autoreari, pertsuasioari begira bere diskurtsoa guztiz eraginkorra baita. Arrazonamendu deduktibo horrekin batera, *exemplak*, batik bat erdal hitzen euskal etimologienak, eta autoritateen aipamenak, bai klasikoenak baita garaikideenak ere, behin eta berriz erabiltzen ditu.

Elocutio edo "janzkera formalari" begira, Larramendiren estiloa bizia, gartsua eta ironiaz bete delako esan daiteke. Estilo hori eratzeko, kontzeptu eta ideia ugari betetako paragrafo oparoak darabiltza, batzuetan umorez jositako irudi metaforikoak eta konparazioak sartuz. Osotasun horrek indarra eta sinesgarritasun handia ematen dio Larramendiren diskurtsoari.

Aitzitik, esku artean dugun obra hau egokiera jakin baten fruitu da. Batetik, argitaratu baino urte bete lehenago, Espainiako Errege Akademiak kaleratu zuen Hiztegiaren lehen aleak Larramendiren baitan sortutako haserrearen ondorio da. Bestetik, garaiko filologoen artean hainbeste eztabaida sortu zuen vasco-iberismoaren baitan kokatzen da, Mariana, Morales eta beste batzuk proposatu zituzten teoriak errefusatzeko sortu baitzen euskararen apologia hau.

Azkenik, uste dut obra honek Euskal Literaturaren historian izan duen garrantzia bereziki nabarmendu behar dela, Larramendi ondorengo euskal literaturaren bultzatzaile izan delako idatzi honetan zehar azaldutako jarrera apologetiko gartsuaren bitartez. Jakina da Larramendiren obra, batez ere hego euskal herriko literaturan argi bat izan zela, haren gramatika eta hiztegia atzetik etorri ziren autore askoren jarraibide izan baitzen. Hala ere nire ustez, esku artean duguna Gipuzkoarraren obra guztiaren ezinbesteko abiapuntu da. Izan ere, hor aurkitzen dugu, Akademiaren hiztegia eredutzat

hartuz, egiten duen lehen etimologiaren zerrenda, C letran bukatzen dena. Besterik gabe berak dioenez, nekatu al zen, edo hori egiten hasi eta benetako euskal hiztegi bat egitearen beharra ikusi zuen? Izan liteke.

BIBLIOGRAFIA

- Albaladejo Mayordomo, T. (1993). *Retórica Síntesis*.
- Altuna, P. "Aita Larramendiren bizitza" en Lakarra, J. A., & Larramendi, M. d (1991).
Manuel larramendi: Hirugarren mendeurrena 1690-1990 Andoaingo Udala.
- Aradra Sánchez, R. M. (1997). *De la retórica a la teoría de la literatura: (siglos XVIII y XIX)* (1. ed.) Universidad de Murcia.
- Caro Baroja, J. (1988). *Sobre la lengua vasca: Y el vasco-iberismo* (3. ed.) Txertoa.
- Cattani, A. (2003). *Los usos de la retórica* (1. ed.) Alianza Editorial.
- Egido, T., Burrieza Sánchez, J., & Revuelta González, M. (2004). *Los jesuitas en España y en el mundo hispánico* Marcial Pons etc.
- Gómez Cervantes, M. d. M. (2006). "El zigzagante y dilatado recorrido de la retórica: Un acercamiento a su cambiante valoración." *Interlingüística*, (17), 419-428.
- Gómez López, R. (1991). "El legado de Manuel Larramendi." *Insula: Revista De Letras y Ciencias Humanas*, (534), 29-30.
- Hernández Guerrero, J. A. (2009). *Historia de la retórica y de la poética en España. S. XVII-XVIII* Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
- Larramendi, M. d., & Perochegui, J. d. (2000). *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España* (1. ed.) San Sebastián: Roger.
- Lausberg, H., & Pérez Riesco, J. (1983). *Manual de retórica literaria: Fundamentos de una ciencia de la literatura* Editorial Gredos.

- López Eire, A. (2000). *Esencia y objeto de la retórica* (1. ed.) Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca.
- López Eire, A. (2008). “La revalorización de la retórica en la actualidad” en Lopetegui Semperena G. (ed.), *Retórica y educación. La enseñanza del arte retórica a lo largo de la historia*, Adolf M. Hakkert, Amsterdam
- Michelena, L. (1959). *La obra del P. manuel de larramendi (1690-1766)* Universidad de Oviedo.
- Michelena, L. (1988). *Historia de la literatura vasca* (2. ed.) Erein.
- Mortara Garavelli, B. (1991). *Manual de retórica* (1. ed.) Madrid : Cátedra.
- Mujika Urdangarin, L. M. (1979). *Historia de la literatura euskerika* Haranburu.
- Oroz Bretón, N. (2008). “Entre la pluralidad lingüística y el vasco-iberismo: Ideas lingüísticas sobre la España prerromana en los siglos XVI y XVII.” *Huarte De San Juan .Filología y Didáctica De La Lengua*, (10), 55-70.
- Ross Ryan, H. (1982). “Kategory and Apologia: on their rethorical criticism as speech set.” *Quarterly journal of speech*, (68), 254-261.
- Salaberri Muñoa, P. (1997). *Axularren prosa erretorikaren argitan* (1. ed.) Leioa: Euskal Herriko Unibersitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Sarasola Errazquin, I. (1986). “Larramendiren eraginaz eta.” *Anuario Del Seminario De Filología Vasca Julio De Urquijo: International Journal of Basque Linguistics and Philology*, 20(1), 203-216.
- Tellechea Idígoras, J. I. & Caro Baroja, J. (1990). *Escritos breves* Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Urkizu, P., & Olaziregi, M. J. (2000). *Historia de la literatura vasca* Universidad Nacional de Educación a Distancia.
- Villasante, L. (1979). *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu.